

Energia

Argia aurreztu ilunpean geratu gabe

Argitasuna nahi dugu, baina gero eta garestiago ordainduko dugu. Energia alferrik ez galtzeko, eta ondo eta aldi berean gehiegi gastatu gabe argizatzen ikastea dagokigu. Bilboko enpresa bat kaleetako argiteria eraginkorragoa izateko neurri-sorta prestatzen ari da. Gure etxerako ere balio dute neurriok.

UNAI BREA

XAHUTZEN DUGUN energiaren zati handi bat argitzatzeko erabiltzen da. Horren %50-60 inguru barne argiteriari dagokio, eta gainerakoa kalekoari; hala azaldu digu Javier Calongek, Consultoria Lumínica bilbotar argiztapen-kontsultoretzako bazkideak. Une honetan, *Lighting Master Plan* izeneko txostena prestatzen ari dira, 21 neurri kaleko argiteria eraginkorragoa izateko. “Esango nuke gaur egun bai kanpoan zein barnean erabiltzen den argiaren erdia baino gehiago ez dela beharrezkoa”. Une batetik aurrera, ez dugu hobeto ikusten argi gehiago egoteagatik. Aldiz, alferrikako energia-gastua egiten dugu eta, bide batez, argi-kutsadura sortu. Gaueko zerua behar bezala ikustea eragotzi ez ezik, kutsadura horrek kalteak sor ditzake ekosistemetan, txori migratzaileei ohiko ibilbideetatik aldentzera behartuz, esaterako.

Calongeren esanetan, “erakunde publikoek hiritarren aurrean eredu bihurtu behar dute, ezin liteke kalera atera eta udaletxea edo aldundia neurri gabe gastatzen ari direla ikusi?”.

Bonbilla egokia, gakoa

Era berean, norberaren esku dago etxe barruko argiztapena eraginkorragoa izatea. Horretarako, funtsezkoa da argi iturria ondo aukera-



Argazki honetan ikus daitekeen farola efizientzia ezaren eredu garbientakoa da. Argiaren erdia baino gehiago zuzenean gora igortzen dute, alferrik galduz.

tzea. Bonbilla mota asko dago, ia zeregin bakoitzerako bat, baina gehienak ez ditugu ezagutzen. Hasteko, saihestu halogenoak; asko kontsumitzen dute, eta energiaren zati handia bero bihurtzen dute. Ez dira batera eraginkorrak beraz. Argia denbora luzez piztuta dagoen lekuetan, kontsumo baxukoak erabili, eta luminaria ondo hautatu: batzuek gehiegi sakabantzen dute argia, kontsumoaren portzentaje handia alferrikako bilakatuz.

Beste bide bat argi naturala baliatzea da. Arratseko orduetan, oraindik iluntzen hasi gabe, etxeko argiak pizteko ohitura dugu, baina badaude moduak eguzki orduetarako etekin handiagoa ataratzeko. Geletako hormak zuriz pintatu gero, argia intentsitate handiagoaz islatuko da eta hobeto ikusi ahal izango dugu. Antzeko efektua lor dezakegu leku egokietan ispiluak ipinuz. Beste kontu bat da leku egokiak zehazki zeintzuk diren jakitea, baina ideia hori da. ■